| IRAGARKIA | ANUNCIO |
|---|---|
| **KONTSULTA PUBLIKOA, OSTALARITZAREN ORDENANTZAREN 3. ALDAKETAREN AURREKOA** | **CONSULTA PÚBLICA PREVIA A LA 3ª MODIFICACIÓN DE LA ORDENANZA DE HOSTELERÍA** |
| Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 133 artikuluan aurreikusitakoaren arabera, arauak egiteko prozeduran herritarren parte-hartzea hobetzeko, proiektua prestatu aurretik, kontsulta publiko bat bideratuko da, administrazio eskudunaren webgunearen bidez. | De conformidad con lo previsto en el artículo 133 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, con el objetivo de mejorar la participación de los ciudadanos en el procedimiento de elaboración de normas, con carácter previo a su elaboración se sustanciará una consulta pública, a través del portal web del departamento competente. |
| Kontsultan jasoko da zer iritzi duten arauak uki ditzakeen subjektuek eta antolakunde nabarmenenek puntu hauei buruz:<br>a) Ekimenaren bitartez konpondu nahi diren arazoak.<br>b) Arau hori onestea beharrezkoa eta egokia den.<br>c) Arauaren helburuak.<br>d) Izan litezkeen bestelako aukera erregulatzaile eta ez-erregulatzaileak. | Se recabará opinión de los sujetos potencialmente afectados y de las organizaciones más representativas acerca de:<br>a) Los problemas que se pretenden solucionar con la iniciativa.<br>b) La necesidad y oportunidad de su aprobación.<br>c) Los objetivos de la norma.<br>d) Las posibles soluciones alternativas regulatorias y no regulatorias. |
| Udalak erabaki du indarrean dagoen Ostalaritzaren Ordenantzaren 3. aldaketa onartzeko prozedura hastea, eta, beraz, kontsulta publikoa egingo da aldaketaren proiektua prestatu aurretik. Memoria informatibo bat ere txertatu da kontsultaren xede diren gaiei buruz. | El Ayuntamiento ha decidido iniciar el procedimiento de aprobación de la 3ª modificación de la Ordenanza de Hostelería vigente, por lo que se procede a realizar la consulta pública con carácter previo a la elaboración del proyecto de modificación de ordenanza. Se incorpora una memoria informativa de las cuestiones sobre las que se |


EIBARKO UDALA

AYUNTAMIENTO DE EIBAR

Egiaztapen kodea (CSV) / Código de Verificación: 91b9fb12732a6cfa02b9a8efd4efed0078eff6d2
Erreferentzia-zenbakia /Nº Referencia: HI9000-000261/2024
Baliozkotze-URLa / URL de validación: https://pegora.eibar.eus/impulsa/csvValidation.do

| Sinadura / Firmado por | Data / En fecha |
|---|---|
| JON IRAOLA IRIONDO (Alkate-udalburua / Alcalde-Presidente) | 26/02/2025 13:15:21 |

Zigilu elektronikoarekin sinatutako dokumentua (Eibarko Udala / Ayuntamiento de Eibar) / Documento firmado con el sello electrónico (Eibarko Udala / Ayuntamiento de Eibar)

Zigilu elektronikoarekin sinatutako dokumentua (Eibarko Udala / Ayuntamiento de Eibar) / Documento firmado con el sello electrónico (Eibarko Udala / Ayuntamiento de Eibar)

| | |
|---|---|
| | consulta. |
| Herritarrek, erakundeek eta elkarteek hamabost egun naturaleko epean helaraz ditzakete beren iritziak, 2025eko martxoaren 31ra arte, hirigintza@eibar.eus posta elektronikoaren bidez edo Udalaren erregistro elektronikoaren bidez. | Los ciudadanos, organizaciones y asociaciones que así lo consideren pueden hacer llegar sus opiniones sobre la propuesta durante el plazo de quince días naturales, hasta el día 31 de marzo de 2025, a través del siguiente buzón de correo electrónico: hirigintza@eibar.eus o a través del registro electrónico del Ayuntamiento. |
| Eskerrik asko zure laguntzagatik. | Muchas gracias por su colaboración. |
| Eibarren, elektronikoki sinatua. Jon Iraola Iriondo Eibarko alkatea | En Eibar, firmado electrónicamente. El Alcalde, D. Jon Iraola Iriondo. |
| **MEMORIA** | **MEMORIA** |
| **OSTALARITZAREN ORDENANTZAREN 3. ALDAKETAREN AURREKO KONTSULTA PUBLIKOAREN MEMORIA** | **MEMORIA DE LA CONSULTA PÚBLICA PREVIA A LA 3ª MODIFICACIÓN DE LA ORDENANZA DE HOSTELERÍA** |
| **Aurrekariak.** | **Antecedentes.** |
| Ostalaritzaren Ordenantzaren jatorrizko bertsioa 1995eko ekainaren 29ko GAOn argitaratu zen, eta ondoren bi aldaketa izan ditu, bata 1996ko urriaren 22ko GAOn argitaratu zena, eta bestea 1999ko otsailaren 12ko GAOn argitaratu zena. | La Ordenanza de Hostelería fue publicada en su versión original en el BOG de 29 de junio de 1995 y posteriormente ha tenido dos modificaciones, que han sido publicadas en el BOG de 22 de octubre de 1996 y en el BOG de 12 de febrero de 1999. |
| **Ekimenarekin konpondu nahi diren arazoak.** | **Los problemas que se pretenden solucionar con la iniciativa.** |

| | |
|---|---|
| EIBARKO UDALA | AYUNTAMIENTO DE EIBAR |

Egiaztapen kodea (CSV) / Código de Verificación:
91b9fb12732a6cfa02b9a8efd4efed0078eff6d2
Erreferentzia-zenbakia /Nº Referencia: HI9000-000261/2024
Baliozkotze-URLa / URL de validación: https://pegora.eibar.eus/impulsa/csvValidation.do

| Sinadura / Firmado por | Data / En fecha |
|---|---|
| JON IRAOLA IRIONDO (Alkate-udalburua / Alcalde-Presidente) | 26/02/2025 13:15:21 |

Zigilu elektronikoarekin sinatutako dokumentua (Eibarko Udala / Ayuntamiento de Eibar) / Documento firmado con el sello electrónico (Eibarko Udala / Ayuntamiento de Eibar)

| | |
|---|---|
| Azken urteetan bizitegi-eremuetan dauden lokaletan jarduera komertziala gutxitzearen ondorioz, udalerrian dauden lokal asko hutsik daude, batez ere erdigunean ez dauden auzoetan.<br><br>Funtsezkoa da, batez ere auzoetan, lokalak betetzea erraztuko duten neurriak hartzea, horrela jarduera ekonomikoen gainbeherari aurre egiteko eta auzoen dinamizazio ekonomikoak eta han dauden zerbitzuen sareak indarra hartzeko. Testuinguru honetan, oso kontuan hartzekoa da udalerrian daukagun lokal parkearen ezaugarri garrantzitsu bat, hau da, lokal askoren neurri txikia.<br><br>Ostalaritza-sektoreak azken urteetan izan duen eboluzioa ere kontuan hartzekoa da. Nabarmentzekoak da, bide publikoan kokatzen diren terrazen arrakasta izugarria; eta baita azken urteetan jarduera komertzialetan ere zabaltzen ari diren ostalaritza-jarduera osagarriek izan duten gorakada, kasu batzuetan ia-ia jardueraren mutazioa ere suposatu duena. | En los últimos años se está produciendo un proceso de disminución de la actividad comercial en los locales ubicados en áreas residenciales, lo que está provocando que muchos de los locales existentes en el municipio se encuentren vacíos, sobre todo en barrios no céntricos.<br><br>Es fundamental, sobre todo en los barrios, adoptar medidas que faciliten el llenado de los locales, para hacer frente así al declive de las actividades económicas y que tome fuerza la dinamización económica de los barrios y la red de servicios allí existentes. En este contexto, hay que tener muy en cuenta una característica importante del parque de locales que tenemos en el municipio: el reducido tamaño de muchos de ellos.<br><br>También hay que tener en cuenta la evolución del sector hostelero en los últimos años. Hay que destacar el enorme éxito de las terrazas situadas en la vía pública, así como el aumento de las actividades complementarias de la hostelera que se están extendiendo en los últimos años también en las actividades comerciales, lo que en algunos casos ha supuesto prácticamente la mutación de la actividad. |
| **Onartzeko beharra eta egokitasuna. Arauaren helburuak.** | **La necesidad y oportunidad de su aprobación. Los objetivos de la** |

| EIBARKO UDALA | AYUNTAMIENTO DE EIBAR |
|---|---|

Egiaztapen kodea (CSV) / Código de Verificación:
91b9fb12732a6cfa02b9a8efd4efed0078eff6d2
Erreferentzia-zenbakia /Nº Referencia: HI9000-000261/2024
Baliozkotze-URLa / URL de validación: https://pegora.eibar.eus/impulsa/csvValidation.do

| Sinadura / Firmado por | Data / En fecha |
|---|---|
| JON IRAOLA IRIONDO (Alkate-udalburua / Alcalde-Presidente) | 26/02/2025 13:15:21 |

| | |
|---|---|
| | **norma.** |
| Eibarko kasuan, ostalaritzak jarduera arautzen duen araudi berezia du, jasota dagoena ordenantza bertan eta udalerriaz gaindiko espektakulu publikoen eta jolas jardueren legedian. Garrantzitsua da ostalaritza-jardueren funtzionamendu egokirako araudi horren menpean geratzea ostalaritza jarduera guztiak, osagarria baita.<br><br>Nolanahi ere, ingurumena modu egokian babesteko eta hiriaren funtzionamendu egokia bermatzeko, ostalaritza jarduera udalerri mailan arautzea beharrezkoa da, horrela bermatzen baita establezimendu guztiek gutxieneko programa bete ahal izatea eta, adibidez, ekiditen dira lurzoru publikoaren okupazio hutsean oinarritzen diren ostalaritza jarduerak.<br><br>Indarrean dagoen ostalaritza ordenantzak I taldeko establezimenduentzako gutxieneko azalerak finkatzen ditu. Hala ere, Ordenantzaren I taldeko establezimenduen kasuan, azalera txikiagoa ere egokia izan daiteke, lokalen gehiagoren bideragarritasuna handituz.<br><br>Beraz, batez ere auzoetan ematen ari den jarduera komertzialaren galeraren | En el caso de Eibar, la hostelería cuenta con una normativa específica que regula la actividad, la cual está recogida en la propia ordenanza y en la legislación de espectáculos públicos y actividades recreativas de ámbito supramunicipal. Es importante que para el buen funcionamiento de las actividades hosteleras dichas actividades queden sometidas a esa normativa, inclusive la complementaria.<br><br>En cualquier caso, para garantizar una adecuada protección del medio ambiente y el buen funcionamiento de la ciudad, es necesario regular la actividad hostelera a nivel municipal, garantizando así que todos los establecimientos puedan cumplir un programa mínimo y evitando, por ejemplo, actividades hosteleras basadas en la mera ocupación de suelo público.<br><br>La vigente ordenanza de hostelería fija las superficies mínimas para los establecimientos del grupo I. Sin embargo, en el caso de los establecimientos del grupo I de la Ordenanza, la menor superficie también puede ser adecuada, aumentando así la viabilidad de más locales.<br><br>Por tanto, para reforzar las alternativas ante la pérdida de actividad comercial que se está dando sobre todo en los barrios, puede resultar oportuno reducir |

Zigilu elektronikoarekin sinatutako dokumentua (Eibarko Udala / Ayuntamiento de Eibar) / Documento firmado con el sello electrónico (Eibarko Udala / Ayuntamiento de Eibar)

| EIBARKO UDALA | AYUNTAMIENTO DE EIBAR |
|---|---|

Egiaztapen kodea (CSV) / Código de Verificación:
91b9fb12732a6cfa02b9a8efd4efed0078eff6d2
Erreferentzia-zenbakia /Nº Referencia: HI9000-000261/2024
Baliozkotze-URLa / URL de validación: https://pegora.eibar.eus/impulsa/csvValidation.do

| Sinadura / Firmado por | Data / En fecha |
|---|---|
| JON IRAOLA IRIONDO (Alkate-udalburua / Alcalde-Presidente) | 26/02/2025 13:15:21 |

Zigilu elektronikoarekin sinatutako dokumentua (Eibarko Udala / Ayuntamiento de Eibar) / Documento firmado con el sello electrónico (Eibarko Udala / Ayuntamiento de Eibar)

| | |
|---|---|
| aurrean alternatibak indartzeko, egokia izan daiteke I taldeko ostalaritza lokalen gutxieneko azalera txikitzea. Horrela, lokal batzuk ostalaritzara bideratzeko duten bideragarritasun eza arinduko litzateke, aukera berriak irekiz, baina aldi berean jokoan dauden interes guztiei modu orekatuan erantzuna emanaz.<br><br>Horretarako, beharrezkoa da indarrean dagoen Ostalaritza Ordenantzaren hirugarren aldaketa onartzea, 8.1 artikulua aldatuko duena. | la superficie mínima de los locales hosteleros del grupo I. De esta forma, se paliaría la falta de viabilidad de algunos locales para ser destinados a la hostelería, abriendo nuevas posibilidades, pero dando al mismo tiempo una respuesta equilibrada a todos los intereses en juego.<br><br>Para ello, es necesario aprobar la tercera modificación de la vigente Ordenanza de Hostelería, que modificará el artículo 8.1. |
| **Aukera daitezkeen irtenbide arautzaileak eta ez-arautzaileak.** | **Las posibles soluciones alternativas regulatorias y no regulatorias.** |
| I taldeko lokalen gutxieneko azalera ordenantza batek araututa dagoenez, ezinbestekoa da ordenantza aldatzea neurria egokitzeko.<br><br>Halaber, gaiak herritarren jardunean eragina duenez, ezinbestekoa da izaera arautzailea duen tresna bat erabiltzea, ordenantza hain zuzen ere (LBRL 84 art.).<br><br>Kontuan izan behar da, gainera, ezen Jendaurreko Ikuskizunen eta Jolas Jardueren abenduaren 23ko 10/2015 Legearen 15. artikuluan, ordenantza eskatzen dela udalek debeku, muga edo murrizketak ezartzeko. | Dado que la superficie mínima de los locales del grupo I está regulada por una ordenanza, es necesario modificarla para adaptar la medida.<br><br>Asimismo, teniendo en cuenta la influencia del tema en las actividades de la ciudadanía, resulta imprescindible la utilización de un instrumento de carácter normativo, como es la ordenanza (art. 84 LBRL).<br><br>Hay que tener en cuenta, además, que el artículo 15 de la Ley 10/2015, de 23 de diciembre, de Espectáculos Públicos y Actividades Recreativas, exige la aprobación de una ordenanza para que los ayuntamientos establezcan prohibiciones, limitaciones o |

EIBARKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE EIBAR

Egiaztapen kodea (CSV) / Código de Verificación:
91b9fb12732a6cfa02b9a8efd4efed0078eff6d2
Erreferentzia-zenbakia /Nº Referencia: HI9000-000261/2024
Baliozkotze-URLa / URL de validación: https://pegora.eibar.eus/impulsa/csvValidation.do

| Sinadura / Firmado por | Data / En fecha |
|---|---|
| JON IRAOLA IRIONDO (Alkate-udalburua / Alcalde-Presidente) | 26/02/2025 13:15:21 |

EIBAR
Udala | Ayuntamiento

EIBARKO UDALA
Ayuntamiento de Eibar

| | |
|---|---|
| | restricciones. |

Zigilu elektronikoarekin sinatutako dokumentua (Eibarko Udala / Ayuntamiento de Eibar) / Documento firmado con el sello electrónico (Eibarko Udala / Ayuntamiento de Eibar)


| EIBARKO UDALA | AYUNTAMIENTO DE EIBAR |
|---|---|

Egiaztapen kodea (CSV) / Código de Verificación:
91b9fb12732a6cfa02b9a8efd4efed0078eff6d2
Erreferentzia-zenbakia /Nº Referencia: HI9000-000261/2024
Baliozkotze-URLa / URL de validación: https://pegora.eibar.eus/impulsa/csvValidation.do

| Sinadura / Firmado por | Data / En fecha |
|---|---|
| JON IRAOLA IRIONDO (Alkate-udalburua / Alcalde-Presidente) | 26/02/2025 13:15:21 |